

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko Martxoaren 22an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, aho batez, testua honakoa izanik:

“Erakunde Adierazpena, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako eguna dela eta.

“Martxoaren 21ean Sos Arrazakeriak, Medicus Mundi Gipuzkoak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako eguna dela eta, Donostiako XXV. Martxa antolatu dute Trintxerpetik Bulebarrera arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

Leloa Muga ez dadila izan herioleku izango da. Izan ere, denbora gehiegiz hala izaten ari delako; bereziki Mediterraneo erdialdekoak (Italia eta Malta), mendebaldekoak (Espainia) eta ekialdekoak (Grezia), Europaren eta Afrikaren arteko migrazioaren haustura marrakoak.

Dakigunez, 2021. urtean, gutxienez, 1.315 etorkin hil ziren Mediterraneo erdialdean; 41 ekialdean, eta 324 mendebaldean. Izan dira hildako gehiago beste mugen inguruetan: 4.400 Atlantikoko bidean, Afrika ipar mendebalde eta Kanariar irlen artean; 27 Mantxako kanalean, Frantzia eta Erresuma Batuen artean; 21 Bielorrusia, Polonia, Lituania eta Estonia arteko mugetan. Eta Europaz kanpo, 651 Mexiko eta AEBen artean; 42 Panama eta Kolonbia artean, Darien oihanean; 98 Afrikako Adarra eta Yemen artean.

2014tik 2021era bitarte, IOM Nazioarteko Migrazioa Erakundearen estimazioak dira gutxienez 46.355 migratzaile desagertu direla:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 22 de marzo de 2022, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“Declaración Institucional con motivo del Día contra el Racismo y la Xenofobia

“Sos Racismo, Medicus Mundi Gipuzkoa y la Coordinadora de ONGDs de Euskadi, con motivo del Día contra el Racismo y la Xenofobia, que se celebra el 21 de marzo, han organizado la XXV. Marcha de San Sebastián. Partirá de Trintxerpe hacia el Boulevard, y, como hemos dicho, se trata de una iniciativa contra el racismo y la xenofobia.

El lema será Que la frontera deje de ser un lugar de muerte. Porque, durante demasiado tiempo las fronteras lo están siendo, especialmente las del Mediterráneo central (Italia y Malta), del occidental (España) y del oriental (Grecia), situadas en la gran línea de fractura migratoria entre Europa y África.

Según sabemos, en 2021 fallecieron, al menos, 1.315 migrantes en el Mediterráneo central; 41 en el oriental, y 324 en el occidental. Y también hubo muertos en otras fronteras o zonas fronterizas: 4.400 en la ruta del Atlántico, entre el noroeste de África y las islas Canarias; 27 en el Canal de la Mancha, entre Francia y Gran Bretaña; 21 en las fronteras de Bielorrusia con Polonia, Lituania y Estonia. Y, fuera de Europa, 651 entre México y EEUU; 42 entre Panamá y Colombia, en la selva de Darien; 98 entre el Cuerno de África y Yemen.

Desde 2014 hasta 2021, la Organización Internacional para las Migraciones (OIM) estima que han desaparecido al menos 46.355 migrantes:



23.355 Mediterraneo erdialdean; 767 gainerako Europan; 5.852 Amerikan; 11.049 Afrikan; 1.238 Ekialde Hurbilean eta 4.074 Asian. Ez da onargarria migrazioa heriotzarekin ordaintzea, bizimodu duinagoa lortu nahian, familia laguntzeko lana lortu nahian.

Azken urteotan, Europako Batasuneko mugei beste mugak eta ibilbideak gehitu zaizkie. Batasuneko barne mugak dira, Batasunaren barruko estatuen artekoak, nola diren Irun-Hendaia artekoa, Frantzia eta Erresuma Batuen arteko Mantxako kanala, edo Atlantikoko bidea, Afrika mendebaldearen eta Kanarien artekoa. Horiatariko bakoitzean gehitzen doa hildakoen eta desagertutakoen kopurua: 4.400 eta gehiago Atlantikoko bidean 2021ean; 27 Mantxako kanalean; 21 Bielorrusia, Polonia, Lituania eta Estonia arteko mugetan; 7 Irun-Hendaia arteko muga. Mantxako kanalean, 2021. urtean 29.397 pertsona erreskatatu zituzten: 28.395 Ingalaterrako itsasertzean eta 1.002 Frantziakoan.

Aurrekoari gehitu behar zaizkio bestelako jende mugimenduak, Europako Batasunarekiko hainbat estatu mugakidek 2020 eta 2021ean zio politikoengatik eragindakoak: Maroko eta Espainia artekoa, Turkia eta Grezia artekoa 2020an, Bielorrusia eta Polonia, Lituania eta Estonia artekoa 2021eko amaieran.

Bien bitartean, Europako Batasuna lortu ezinik dabil migrazio eta asilo politika bateratu txukun bat. Batzordeak 2020an aurkezturiko egitasmoa erdi geldirik dago. Zehaztu ezinean dago, Batasuneko estatuen arteko kontraesan latzak tarteko. Batzuek kosta ahala kosta gerarazi nahi dute immigrazioa, hesiak eta harresiak eraikitza ere. Beste batzuek asilo eskatzaileak hirugarren herrialdeetara bota nahi dituzte, haien asilo eskaerak onartu bitartean. Hainbatek sarrerak eta irteerak arautu nahi dituzte: kanpo muga direnek kontrol gehiago nahi dute muga haietan. Eta hala ez direnek bigarren mailako deituriko mugimenduen kontrol gehiago nahi dute, herrialdeen arteko mugimenduak, hemen transitozko migrazioa esaten duguna. Emaiza da negoziazioen geldiera eta betikotzea, erabakirik ezin hartuta migrazio mugimenduak modu egokian antolatzeko.

Heriotzak migrazio mota batean pilatzen dira; alegia, Schengen espaziora sartzeko sarrera bisa behar duten herrialdeetatik datozenengan (batez ere Afrikako eta Asiako alde bateko migrazioarengan). Hildakorik ez dago hegazkinez

23.355 en el Mediterráneo; 767 en el resto de Europa; 5.852 en América; 11.049 en África; 1.238 en Oriente Medio, y 4.074 en Asia. No es aceptable que la migración se pague con la muerte, siendo, además, algo que se hace en busca de una vida más digna, de un trabajo para ayudar a la familia.

En los últimos años, a las fronteras exteriores de la Unión Europea, se les han unido otras fronteras y otras rutas. Son fronteras interiores de la Unión, entre Estados de la propia Unión, como la de Irun-Hendaia, el Canal de la Mancha entre Francia y Reino Unido, y la ruta del Atlántico entre África del oeste y Canarias. En cada uno de ellas va aumentando el número de personas fallecidas y desaparecidas: Más de 4.400 en la ruta del Atlántico, en 2021; 27, en el Canal de la Mancha; 21, en las fronteras de Bielorrusia, Polonia, Lituania y Estonia; 7 en la zona fronteriza de Irun-Hendaia. En el canal de la Mancha, en 2021, fueron rescatadas 29.397 personas: 28.395 en las costas inglesas y 1.002 en las francesas.

A lo anterior hay que añadir otros movimientos de personas, provocados por diversos Estados fronterizos con la Unión Europea en 2020 y 2021, por diferentes motivos políticos: Marruecos y España en 2021, Turquía y Grecia en 2020, Bielorrusia, Polonia, Lituania y Estonia a finales de 2021.

Mientras tanto, la Unión Europea sigue sin poder construir una política común de inmigración y asilo que merezca tal nombre. El proyecto presentado por la Comisión en 2020 sigue medio paralizado. No acaba de concretarse, debido a las profundas contradicciones entre los Estados que conforman la Unión. Algunos quieren detener la inmigración a toda costa, incluso construyendo muros y vallas. Otros quieren expulsar a terceros países a los solicitantes de asilo, hasta que sus solicitudes sean aceptadas. Hay quien quiere regular las entradas y salidas. Los que son frontera exterior quieren mayor control en esas fronteras. Y los que no, quieren mayor control de los llamados movimientos secundarios, los movimientos entre diferentes países; lo que aquí llamamos migración en tránsito. El resultado es la paralización y eternización de las negociaciones, sin que se puedan tomar decisiones para organizar de forma adecuada los movimientos migratorios.

Las muertes se concentran en un tipo de migración, la que proviene de los países que tienen obligación de disponer de un visado de entrada para acceder al espacio Schengen, principalmente la inmigración procedente de África y de una parte de



iristen direnen artean, edo eta bisaren beharrik ez dutenen artean, nahiz eta geroago arazo larriak izan ditzaketen erregulizazio administratiboekin.

Europako Batasunak hartzen ditu nazioarteko migratzaile gehien munduan: 86 milioi inguru. Halaber, munduko migrazio helmuga nagusietakoa da (2020an 2.247.362 lehen bizileku baimen eman ziren; 2016 eta 2020 artean 13.183.366 lehen bizileku baimen eman ziren). Hein berean, urtero milaka lehen asilo baimen eskaera egiten dira (417.070 2020 urtean) helduentzat eta adingabeentzat, lagundu gabeko adingabeentzat barne.

Arazoa da, aspalditik, sarrera horiek guztiak ez direla nahikoak, milaka lagunek uzten dutela sorterrria Europako Batasunera etortzeko, bizimodu duinagoa egin asmoz, etorkizun hobe baten bila edo eta jazarpenetik ihesi. Beraz, nahiz eta egungo sarrera kopuruak estimatzen ditugun, jende gehiegi geratzen ari da ate joka gurean, bidaia arriskutsuak eginez eta bizia kolokan jarritz.

Eta munduaren norabidea ikusita, badirudi ate joka datorren jende kopurua handitu egingo dela. Afrika da munduan hazkunde demografiko handiena duen lurraldea; Afganistango egoerak opresio eta miseria handikoa izaten jarraitzen du; Ukrainako gerra hor dugu; Saheleko zati handi batean gatazka militarrek gora doaz eta inguruko herrialdeetara zabaltzen, nola Kamerunen eta Nigerian; Libia huts egindako estatua da, migrazio plataforma bihurtua; Sirian eta Iraken bizimodua aski latza eta prekarioa da aspaldi...

Jada badira Donostian 25 martxa, mugetan eskubideak urratzen direla salatzen, dakarten heriotza politikak eta diskriminazio selektiboak salatzen. Lehenengoa egin zenetik egoera ez da hobetu: mugen kontrol eta itxiera politikak gero eta larriagoak dira, jendeak bizia arriskatu behar du migratu ahal izateko, eta hori bera ikusi dugu aurten Irun eta Hendaia arteko mugan. 40 metro zubi amildegi bihurtu dira ipar eta hego artean. 40 metro itxikeria eta min.

Egoerak eskatzen du erabaki politiko eta sozialak

Asia. No hay muertes entre quienes llegan en avión, ni entre quienes no tienen la obligación de disponer de un visado, aunque luego puedan tener serios problemas con su regularización administrativa.

La Unión Europea es la zona del mundo que acoge mayor número de migrantes internacionales: Alrededor de 86 millones. Es también uno de los principales destinos migratorios del mundo (en 2020 se concedieron 2.247.362 permisos de residencia iniciales; entre 2016 y 2020, estos fueron 13.183.366). Asimismo, cada año se formalizan miles de primeras solicitudes de permisos de asilo (417.070 en 2020), tanto de adultos como de menores, incluidos menores no acompañados.

El problema es que, desde hace tiempo, todas estas entradas no son suficientes, porque muchos miles de personas más salen de sus países con destino a la Unión Europea, buscando una vida más digna, un futuro mejor o protección ante la persecución de la que son objeto. Por lo tanto, aunque valoramos las cifras de ingresos actuales, vemos que se está quedando demasiada gente a las puertas, después de hacer viajes muy peligrosos y de poner en peligro su propia vida.

Y tal y como va el mundo, todo apunta a que esas personas que se quedan a las puertas van a ser cada vez más. África es el territorio con mayor crecimiento demográfico del mundo; Afganistán sigue viviendo una situación de una gran opresión y miseria; ha comenzado la guerra en Ucrania; los conflictos militares en una buena parte del Sahel se están intensificando y afectan a zonas contiguas, como Camerún y Nigeria; Libia es un estado fallido, convertido en plataforma migratoria; en Siria e Irak la vida es muy dura y precaria hace mucho tiempo...

Son ya 25 marchas en Donostia, denunciando la vulneración de los derechos en las fronteras, la discriminación selectiva y las políticas de muerte que suponen. Desde la primera de las marchas que se celebró, la situación no ha mejorado: las políticas de control y cierre de fronteras son cada vez más duras, las personas se ven abocadas a arriesgar su vida para poder migrar, y así lo hemos visto este año en la frontera entre Irun y Hendaia. 40 m de puente se han convertido en un nuevo abismo entre el norte y el sur. 40 metros de cerrazón y dolor.

La situación requiere la adopción de medidas



hartzea, migrazio fluxuak eta nazioarteko babes, asilo eta aterpe eskaerak hobeto bideratzeko, eta Europako herrialdeen arteko transitoak eta barne mugen artekoak hobe erregulatzea.

políticas y sociales que puedan canalizar, mejor de lo que hasta ahora se ha hecho, los flujos migratorios y las demandas de protección, de asilo y de refugio internacionales, así como regular también mejor los tránsitos entre países europeos y entre fronteras interiores.

Gauzak horrela, honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau onartzen du erakunde honek:

Por todo ello, esta institución aprueba la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL:

1.- Donostiako Udaleko osoko bilkurak Europar Batasunari eskatzen dio ziurtatzeko nazioarteko babesa behar dutenek benetan eska dezaketela iristen diren herrietan eta errefuxiatuen berkokatzeak azkartzeko berdintasun irizpideen arabera". =====

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a la Unión Europea que garantice que las personas que necesitan protección internacional puedan solicitarla efectivamente en los países a los que llegan, y que agilice las reinstalaciones de las personas refugiadas, con criterios de igualdad". =====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko martxoaren 29an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 29 de marzo de 2022.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**